

# Arrasate

UPRESS

1999ko  
urriak 1  
495. zenb.




IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • KULTURA ELKARRIZKETA: LEIRE APERRIBAI  
EUREN IKUSPUNTUTIK: BITTOR ARRIARAN • KIROLAK: ESKUBALOI TALDEA



# Spek Denda

Iturrioz, 19 Arrasate Tel.: 943791129



# Kableak dakarrena

**G**ero eta sarriago tokatzen zaigu entzutea teknologia berrien eskutik sekulako iraultza datorrela, eta haize kolpe hori hartzen ez duen belaontzia noraezean geldituko dela itsaso mugagabearen erdian. Edo, beste aukera bat, itsasoa tren geltoki bihurtuta, datorren tren horretara igotzen ez dena bazterrean geldituko dela, etorriko ez den hurrengo trenaren zain, alperrik.

Berez, ez naiz teknologiaren oso zale. Nitaz seguru samar esan ditzakedan gauzen artean hau da seguruenetako: ordenagailua eta teklatura baino maiteago ditut ortua eta aitzurra. Eta hala ere, ezagutzen dut teknologiak munduaren bilakaeran izan duen eragina, onartzen dut bilakera hori gabe okerrago



Mikel Irizar

**“Ahal den neurrian, izan gaitzen teknologiaren menderatzaile eta ez menpeko”**

biziko nintzakeela, edo agian bizi ere ez, eta pentsatzen dut hobe dugula tresna berriak erabiltzen ikastea, ahal den neurrian teknologiaren menderatzaile izan gaitzen eta ez menpeko. Lehengo belaontziaren adibidean, helburua litzateke haizearen indarra erabiltzea, nahi dugun portura iristeko.

Eta orain, noan harira. Zentzu bitan gainera, ze artikuluaeren muinera hurbiltzeko uinea iritsi da, eta era berean muineko gaia haria da, kablea, mundu berriarekin lotuko gaituen kable informatikoa. Izan ere, iraultza berria kablez dator. Urte

bete baino lehen kable berri bat ekarriko digute etxeraino, lehen argindarra, telefonoa eta telebistarena bezala, baina oraingo kable honek lehengoak baino aukera askoz gehiago emango ditu. Mundu osoko seinaleak jaso

ahal izango ditugu, eta mundu osora seinaleak bidali, senide batekin telebistaz berba egin edo gure gustuko musika zatiak han eta hemen aukeratu ondoren, guztiak bideodisko batean editatu, munduan bakarra izango den argitalpen batean.

Eta beste asko oraindik imajinatu ere egin ezin ditugunak.

Iraultzen aurrean garrantzi handia izaten du gauzak nondik nora joan daitezkeen igartzeak. Alegia, haizea nondik datorren eta belaontzia nora zuzendu nahi dugun.

Eta horretan hasi gara bailaran euskarazko komunikabideetan ari garen pertsona eta elkarteak. Egoera berriak eskaintzen dizkigun aurrerabideak, eta sortzen dizkigun arriskuak aztertzen. Orain artekoa hobetu, indartu eta osatzeko modua aurkitu nahi dugu eta elkarlana garatuz, gure indarrak batu. Iraultzaren ostean gure hedabideak eta zerbitzuak herritarrentzat egokiak izan daitezken, egokienak. Eta behingoz, euskarazkoa izan dadin bertsio originala, eta besteak itzulpenak.

Izango duzue gure lanaren berri! ■

*“Ertzaintzaren aktuazioa derrigorrez izan behar da helburu gaizto batzuen bila edo borondate txarrez eginda”*

**Xabier Zubizarreta**

BAZENEKIEN?

## Fraideak kuartelera

Hil berri den Demetrio Garmendia ATBn kontatu zuenez, 1968 inguruan giroa oso nahasia zebilen Arrasaten.

Frantziskotarrek bazuten fraide gazte bat, Bixente Garmendia, oso sartuta omen zebilena kaleko mugimenduarrekin. Halako batean atxilotu egin omen zuten kale agerraldi baten ostean eta udaletxeko espetxera eraman.

Biharamonean komunitateko fraide guztiak kuartelera joan ziren, fraidearen berri izatera. “Haserretu zitzaizkigun goardia zibilak, Jesus! Oso gaizki hartu gintuzten!”, adierazi zuen Demetrio Garmendiak.

Biharamonean Donostiara eraman zuten fraide gaztea. Gipuzkoako gotzainak, berriz, onartu ez fraide bat preso izatea eta kartzelatik atera eta deserrira eraman zuten, Extremadurara lehenengo eta Burgosera gero.

**5.000**

**eskapulario atera dira Maritxu Kajoi egunerako**

Bakoitzak 200 pta balio du. Beraz, eskapularioen salmentatik milioi bat pezeta jasotzea espero dute antolatzailleek, jaiaren eurrekontuaren %45 inguru. Aurtengoak Yanyo izan zenaren omenezko bertso bat dakar.



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otxalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Manjoo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arriola. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Maitte Urriola-Beltia (Tel.: 943 71 23 90). **Diselina:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemakalariak:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmale Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontertatua.** **Inprimatokia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 1**  
 • Azkoaga, Ferrerías
- Larunbata, 2**  
 • Español, Iturriotz
- Igandea, 3**  
 • Korcuera, Musakola
- Astelehena, 4**  
 • Irizar, Erguin
- Astearte, 5**  
 • Amezua, Santamaña
- Asteazkena, 6**  
 • Zabala, Zarugalde
- Osteguna, 7**  
 • Ruiz, Maalako Errabala

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
 Iguaiatorioa ..... 943 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 943 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 943 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

**Gurutze Gorria**  
 Bergara ..... 943 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 943 78 71 57

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ... 943 03 53 00  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
 • Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
 • Ikuskatzailea ..... 943 03 53 52  
 • Kanpoko kontsultak: ..... 943 03 53 11  
 • Fax zenbakia: ..... 943 03 05 14  
 Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
 Aramaio ..... 945 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati ..... 943 78 04 11  
 Bergara ..... 943 77 91 06  
 Arrasate ..... 943 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 943 71 44 07

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 943 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00  
 Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 943 79 78 44  
 ..... 943 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 943 79 12 22  
 PESA. .... 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

**Monterron liburutegia**  
 Monterron ..... 943 77 01 05

**Irratia**  
 Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## AURREJUBILATUAK

**D**eba Garaiko aurrejubilatua, pentsionista eta alargunen elkartearen dago Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza ez eta Gatzagako inor. Eta egoera berean gaudenez, honako lerro hauek helarazi nahi dizkizuegu. Bide batez, gure aldarrikapenak egiterakoan jende gehiago bildu nahi dugu. Honako hauek dira gure eskaerak:

- Ikusirik sortu berri dugun aurrejubilatuen elkartearen ez dagoela hemengo inor, gutun hau idaztea erabaki dugu, zuek ere parte har dezazuen denonak diren arazoak konpontzen. Honako eskari hauek egiten ditugu.

- Urteroko igoerak borondatez erretiratu ez eta Segur-tasun Sozialean 35 urte baino gehiagotan ordaindu dute-mentzat. Erretiratzeko orduan aplikatzeko eta 65 urte bete-tzerakoan %100era irits dadin.

- Pentsioak arautzea borondatez erretiratu ez diren kasuan ere, 60 eta 65 arte-an dutenei, baldin eta 40 urte baino gehiago ordaindu badute Segur-tasun Sozialean. Aldi berean, alargunei ematen zaien oinarri arautzailearen %45a %70era igotzea.

Eskari hauek aho batez onartu ziren Eusko Legebiltzarrean eta Madrilgo Gobernuari aurkeztu, Estatuaren Aurrekontuetan kontuan har daitezen.

Gaur egun 14 elkarte ari dira lanean Euskadin, Euskal Federakundearen bat eginda. Denek ere irabaz asmorik

gabeko elkarteak dira, inor ez dute baztertzen eta ez dute inongo loturarik ez alderdi politikoeekin eta ezta sindikatoekin ere.

Zure laguntza eta konpromisoa eskatzen dugu, eskari hauek bete daitezen.

Argibide gehiago, telefono hauetan: 943 78 33 37 eta 943 78 05 26.

*Appalde  
 (Deba Garaiko  
 Aurrejubilatua,  
 Pentsiodun eta  
 Alargunen Elkarte).*

## GAZTE TXOKOEN BOST URTE

**G**ezurra dirudi, baina euri Gasko egin du Musakolako eta San Andreseko Gazte Txokoak ireki zirenetik, 1994ko irailaren 23an. Zenbat barre, dantza, ilusio, proiektu, tristura (ixterako orduan soilik) eta zorokeria egon ote dira bertan. Nork daki?

Egia esan, Gazte Txokoak beste bizitza bat eman dio auzoari, gatza eta piperra. Azkenean gazteok badugu toki bat irakurtzeko, musika entzuteko, jolasteko, biltzeko, ilusioak gauzatzeko eta beste hainbat gauzatarako. Hori bai, berogailua behar da negurako!

Dagoeneko ez gara egon beharko euripean edo Manolonean, dirua barra-barra xahutzen, lehenago bezala, batzuen pozerako eta beste batzuen tristurarako. Gazte Txokoa hor dago, arramek jaten ez badute behintzat, nahi duenari irekita, arrasatearrei eta musakolarrei, neska eta mutilei.

Kinu bat ere Eider Otxoa zuzpertzaileri. Hilaren 30ean 25 urte beteko ditu eta! Zorionak, beraz, Gazte Txokoari eta beste urte piloa bete ditzala.

*Musakolako Gazte Txokoan denbora larregi (onerako) egoten den bat*



**HIES EKIMENA**  
 Astelehen, astearte  
 eta ostiralean  
 Setatik 8etara.

**Tel.: 943 79 26 99**

# Ardoa garestiagoa denetik gutxiago saltzen da?

Errioxako ardoak biderkatu egin du prezioa.



**Narciso Andres**  
(68 urte)  
Erretiratua

Nire ustez, antzera. Jen-deak ez dio edateari lagatzen. Beraz, berdin.



**Ines Valentin**  
(65 urte)  
Erretiratua

Antzera, ezta? Ardoa gustuko duenak ez dio edateari lagatzen.



**Alex Aginagalde**  
(16 urte)  
Ikaslea

Ideiarik ere ez, baina agian bai. Nire aitak erosteari laga dio, bai.



**Manex Agirre**  
(17 urte)  
Ikaslea

Errioxakoa kalitateko ardoa da, baina garestiagoa baldin bada, gutxiago salduko da.



**Pako Azpiazu**  
(48 urte)  
Langilea

Jaitsi egin da, bai, kontsumoa. Igoera handia izan du. Gainera, gehiago igoko dela diote. Ez dago eskubiderik horrelako prezioak jartzeko.



**Naroa Gurrutxaga**  
(21 urte)  
Ikaslea

Ez dakit. Ez dut ardorik edaten. Beraz, berdin zait.



**Agurtzane Iriarte**  
(30 urte)  
Langilea

Bai, igarri egin da gutxiago erosten dela. Kanpoko ardoa ekartzen hasi dira. Elkarre gastronomikoetan ere garestiagoa da botila ardoa.



**Elena Balzategi**  
(67 urte)  
Erretiratua

Guk lehen bezala edaten dugu. Dena dela, orain kaxa osoa erosi dugu eta merketxoago atera zaigu.

## JAI ZALE TABERNA


- Ogitartekoak
  - Infusio naturalak eta...
  - Pintxoak
- MARTXA TOPATUKO DUZU!

Olarte, 37 • Tel.: 943 79 67 92 • ARRASATE

## ARROGOI TABERNA

*Maritxu jaia iritsi da, zatorz gusana!*

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40



# Jazz dantza eta gaur egungoa

## Hastapen eta sakontze ikastaroak

- **Irakaslea:** Ana Mandiola
- **Tokia:** Arrasate Musikal
- **Ikastaro egunak:** larunbatetan, 16:30 - 19:30
- **Iraupena:** urriak 16 - abenduak 18
- **Matrikula:** 5.000 pta  
3.000 ikasle eta langabeentzat

**IZENA EMATEA:**  
**Gazte Bulegoan**  
Tel.: 943 77 00 65




ARRASATEKO UDALA  
Gazteria Saila ■

# Karibeko dantzak

## Sakontze mailako ikastaroa

- **Noiz:** urriaren 13tik azaroaren 17ra
- **Egunak:** astelehen eta asteazkenetan
- **Ordutegia:** 19:30 - 21:30
- **Tokia:** Musakolako Saloian
- **Matrikula:** 4.000 pta  
2.500 ikasle eta langabeentzat
- **Plaza mugatuak**



**IZENA EMATEA: Gazte Bulegoan** • Tel.: 943 77 00 65



ARRASATEKO UDALA  
Gazteria Saila ■

astea bi hitzetan

■ **Hiru errepede 2000.ean**

Deba Garaiko hiru errepede konponduko dira 2000.erako. Halaxe adierazi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak Bergaran. Antton Jaime diputatu nagusiordeak aurkeztu zituen proiektuok. San Prudentziotik Epelerainoko bidez zatia konpontzeko lanak datorren udaberrian hasiko dira. Bergararik Elgetarainoko bidearen konponketa iragarri zuen eta Bergarako ekialdeko saihezbidea ere 2000. urterako dela. Beasain-Durango errepede-

ari buruz, saiatuko direla egiten adierazi zuen, beti ere aurrekontuaren arabera.

■ **Euskaltzaindia Aramaion**

Lore Jokoen ospakizunetan parte hartu nahian, Euskaltzaindia Aramaion izan zen ostiraletik igandea arte. Hileroko bilera egin zuen eta hiztegi batua lantzen aritu zen.

Larunbatean, IV. Jagon jardunaldiak egin zituen. Euskararen ofizialtasun osoa lortzeko bide berriak jorratzea proposatu zen. Sei herrialdeetan ariko litzatekeen erakunde bat sortzea ere

aipatu zen jardunaldietan.

Igandean Aramaioko sei seme kuttunen izendapenean hartu zuen parte.

■ **Udazkena**

Haize gogorrak lagun, ostiraleko 13:32an sartu ginen udazkenean. Indartsu samar datorrela dirudi. Kolore marroi eta horiskak nagusitzen diren urtaro honetan apurka-apurka hotza nabarmentzen joango da neguari paso emateko. Hala ere, Pello Zabalak esandakoaren arabera, egun onak ere utziko dizkigu urtaro honek.

■ **Omenaldia On Jose Mariari**

Barinagatik Arrasaterako bidea egin zuen On Jose Maria Arizmendiarietak 1942an gurera bidali zutenean. Bide bera egin zuen haren arreba Mariak joan den ostiralean, anaiaren omenaldian parte hartzeko. Goikobaluk ireki zuen ekitaldia. Arrasateko parrokoak gogoratu egin zuen On Jose Maria eta bedeinkatu anaia bien hilobiak. Ekitaldi xumea eta hunkigarria.



Aramaio aspaldi hasi zen euskal baratzean fruituak ematen. 1682an jaio zen Barrutia. Arrasateko idazkari izan zen aramaiar honek idatzi zuen euskarazko lehen antzerkia: *Gabonetako Ikuskizuna*.

Aramaiar bat hasi zen, Gabirel Jauregi karmeldarra, fisikako eta kimikako eskola liburuak euskaraz burutzen ikastoletarako eta euskal eskoletarako. Gerrak izkutarazi zituen 1935ean eta 1936an argitaratu zituen *Pisia* eta *Kimia*. Aramaio ez da sekulan bere baitan kiribildua egon, Euskal Herri osora zabaldua baizik”.

**MIKEL ATXAGA**

Deia,  
1999.9.23

**LOS VAQUEROS**

Zerkaosteta, 5 • 943 79 97 55

Maritxu ostean,  
bakerotan primeran  
pasetako!!



*Zatoz eta eman izena!*

# IDIOMASTER

1999/2000 IKASTURTEA

## HIZKUNTZAK:

- Ingelesa.
- Frantsesa.
- Alemana.
- **Italiera (berria).**
- Jatorrizko irakasleak.
- Talde txikiak.
- Maila guztiak.
- Adin guztiak: Heldu, gazte eta umeentzako hasiera ikastaroak (6 urtetik aurrera).
- Ordu-tegi bereziak txandaka lan egiten dutenentzat.
- Cambridge azterketarako prestakuntza.
- Ikasturtearen hasiera: Urriaren 4a.

Otalora, 29 - behea • Tel.: 943 79 07 84 • ARRASATE



## Altzari rustikoak

Komodak, armairuak, kutxak, mahaiak, erlojuak, liburutegiak, arasak eta beste hainbat apainketa-gauzaki.

- Zaharberritzeak.

**ZUMADIÀ**  
ÀNTIGÜEDÀDES

### Ordu-tegia:

Astelehenetik ostiralera:  
09:30 - 13:00 eta 16:00 - 20:00  
Larunbatetan: 09:30 - 13:00

Garibai auzoa, 12 • Oñati eta Zubillaga auzoen artean • Tel.: 943 71 60 75



USTEAK USTE

Ertzaintzaren erokeria

**E**TAK urtebete pasatxo utzi zion hiltzeari, bake prozesua deritzon zerbait ari da mami-tzen, Arrasaten aspaldi ez da egon kale agerraldi istilutsurik... Hala ere, badirudi Arrasateko ertzaindegian ez direla oraindik horretaz jabetu.

Modu asko dago baimenik ez duen kale agerraldi bat desegiteko eta Arrasateko ertzainek arriskutsue-na aukeratu zuten astelehenean: manifestarien buruetara tiro egitea, aurretik bat ere abixurik eman gabe. Hiru-lau metro-tik botatako pilota horietako batek min eta kalte handia egin dezake. Astelehenean gutxi falta izan zen Ino Galparsoro alkateordeak eta Agustin Ibarluzea Txispasek ezer larriagorik ez izateko. Eskerrak.

Ertzainek ulertu egin behar dute garai berriek bestelako jokamoldeak eskatzen dituztela; arazoak ez direla ostiaka konpon-tzen.

Hori ulertzen ez duen ertzainburuak arriskuan jar dezake arrasatearren elkarbi-zitza eta bakebidea bera. Hobe luke kargua uztea.

Joxe Aranzabal



Pilotaleku berria

\* Bittor Arriaran

**A**rrasateko pilotaleku berriaren balizko izenari buruz *Diario Vasco* egunkarian azaldutako artikulua-ren harira, (Arrasateko kroni-kan azaldu zena), hainbat gau-za zehaztu nahi nituzke.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi nizkioke Joxe Arriaran izena proposatu duen batzordeari, erakutsi duen arreta-gatik. Abizen hori eramate-az gain, uste dut pilotan egon den pilotaririk onenetariko-a izan dela.

Joxeren bizitzan pilotale-kuari izena emateko adina meritu badagoela argi utzi oste-an, hainbat gauza zehaztu nahi ditut:

- Joxek pilotari handi bate-kin osatu zuen bikotea, eta berarekin txapeldun izan zen bikoteka. Bere anaia Pako zen bikotelaguna. Ez dut ezta-baidan sartu nahi hobea zein zen argitzeko: Pako, Joxe edo Felix. Gogo-ratzekoa da, gainera, anaia nagusia ere pilo-taria izan zela. Denok dakiguna zera da: biko-te handia osatu zutela, eta Pako Arriaran lurralde honek eta herri honek eman

duen beste pilotari handiene-tako bat izan dela.

- Pako Arriarani beste meri-tu izugarri handi batzuk eman behar zaizkio, inork zerbait egin badu herri honetan pilo-ta gaur egun dena izatera iritsi zedin, neurri handi batean Pako Arriarani eskertu behar bai-tzaio. Pilotarengatik bizi eta hil zen. Hori izan zuen bere bizi-tza eta fede osoz baieztza de-za-kegu gainera, bai nik eta bai-ta pilotarengatik jakinmina izan zuen edozein pertsona edo pilotazalek edo Pako ezagutu zuen edonork. Bakoitzari berea, eta hemen inork ezin dezake uka begibistan dagoena. Erre-tiratu ostean, bizitzak eman ziz-kion urte guztiak pilotari eskai-ni zizkion, eta denok dakigu

zer galdu zuen pilotak eta zer galdu genuen guztiok joan zitzagunean.

- Honengatik, aipatu dudan batzordeari ondorengoa pro-posatu nahi nioke: Pako Arri-aranen bizitza ikusita, bai pilo-tari eta baita pertsona bezala, pilotalekuaren izena (pilotari-ren batena izan behar badu, hori ez baitut oso argi) "Arriaran anaia-k" izan behar litzateke-la. Horrela justuagoak izango gara historiarekin eta harrota-sunez beteko baitu bai Joxe eta baita bere familia ere.

- Azkenik, eta *Diario Vasco* kazetari Oliden jauna-rentzat: azpikeria onartezina iruditzen zait bai kazetari baten-gan eta baita beste edozein per-tsonarengan ere, Pako Arri-aran pilotariak ezker abertzale-arekiko zuen joera politikoari erreferentzia egitea justifika-tzeko alderdi politiko batek izan dezakeen asmoa pilotale-kuak Pako izena eraman dezan. Nik dakidenez, alderdi politi-ko horrek ez du gaiaren ingu-ruan inongo erabakirik hartu, baina ikusten duzunez, Oliden jauna, kirol argumenturik ez zaio faltako. Baina noski; kohe-rentzia politikoaz gain, Pako Arriaranek bizi osoan kirole-an eta gizartean erakutsi zuen koherentzia, ulertzen dut zu bezalako batentzat guztiz ulertezina izatea.

*Oharra:* Garbi utzi nahi dut Arrasatek Arri-aran anaiez gain beste pilo-tari handi batzuk ere izan dituela (*Mondragones, Zurdo...*). Horiek ere mere-zi dute Arrasateko pilotaleku berriak beren izena eramatea.

“  
Pako Arriaranen bizitza ikusita, pilotalekuaren izena Arriaran anaia-k izan beharko litzateke  
”

*Sili Sili*  
Martxa eta estilo handiko arropa  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN**  
jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 943 71 24 25

# 1 ostirala

■ ZINEA

Ez da saiorik izango.

■ UNTZILAKO JAIAK

21:00etan auzo afaria, elkarteko bazkide eta auzotarrekin. Ondoren Mañukorta eta Xabier Zeberio bertsolariak arituko dira.

■ UNTZILAKO JAIAK

- 12:00 meza, auzoko hildakoen omenez.
- 22:30 dantzaldia, *Lontxo* taldearekin.
- 23:00 Murumendi elkarteko XVII. bolo txapelketa jokatu da.

■ EUSKAL JAIA

Oñatin San Migelak direla eta, euskal jai eguna ospatuko dute txoznen batzordeak antolatuta. 19:30ean omenaldia egingo zaie euskal preso eta iheslariei.

■ JAM ARETOA

*Primal Fear*, *Matalium* eta *Sinergy* taldeen kontzertua izango da Bergarako Jam aretoan, 22:00etan. Sarrera aurrez, 2.300 eta hantxe 2.500 pta kostako da.

# 2 larunbata

■ ZINEA

*Locos en Alabama*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

## MENDIZABAL



### okindegia

Sebero Altube, 2 • Tel.: 943 79 89 60  
ARRASATE

# 4 astelehena

■ ZINEA

*Locos en Alabama*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30ean.

■ SAN MIGELAK OÑATIN

Mozorro eguna ospatuko dute.

# 5 asteartea

■ ZINEA

*Locos en Alabama*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30ean.

■ EKINEN HITZALDIA

EKIN taldeak "Egoera politikoa aztergai" izenburua duen hitzaldia eskainiko du Arrano elkartearen, 19:30ean.

# 3 igandea

■ ZINEA

*Locos en Alabama*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ UNTZILAKO JAIAK

- 12:00 Meza nagusia. Ostein, dantza saioa.
- 13:00 Vermouth dantza, Joxe Gardokirekin.

■ SAN MIGELAK OÑATIN

Txoznen batzordeak 2Kate eta LIF taldeen kontzertua antolatu du, 22:30ean.



KONTRATAK  
IRYROK S.L.  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Tel.: 943 77 09 92 • Faxa: 943 - 79 78 14 • ARRASATE

# 6

## osteguna

### ■ PASTORAL HITZALDIA

Aretxabaletako parrokoa arituko da Arrasateko abade-txean 18:00etan, gaixoen zain-ketari buruz.

### ■ UNICEF-EN MAHAI INGURUA

“Kosovoko haurrak gatazka armatuetan eta munduko haurren egoera” gaia jorratu-ko du UNICEFek antolatu duen mahai inguru honek. 19:00etan izango da, Bergarako udaletxeko batzar aretoan. Hizlariak Juan Jose Ortiz UNICEFeko arduraduna Kukaseko (Albania) iheslarien esparruetan, Consuelo Crespo, Euskal Herriko UNICEFeko batzordeko lehendakaria eta Bergarako gobernuz kanpoko era-kundeak izango dira.

### ■ BERTSOLARI TXAPELKETA

Urriaren 8an Gipuzkoa-ko Herri Arteko Bertso Txapelketa egingo da Arrasaten. Leinz eta Azpeitiko Oñatz taldeen arteko kanporaketa jokatu-ko da. Afaria Alkartu elkarte-ean egingo da, 20:30ean. Txartelak salgai daude AEDn, 1.700 pta.

### ■ EGA IKASTAROKAK

Arrasateko Erdu-AEK euskaltegiak EGA ikastaro- en matrikulazio epea zabaldu du. Argibideak Garibai etorbideko 14.ean.

### ■ DANTZA IKASTAROA

Gazte bulegoak “Jazz dantza eta gaur egungoa” ikastaroa antolatu du. Ana Mandiolak zuzenduko du eta urriaren 16an hasiko da. Interesatu-ek 943 77 00 65 zenbakira deitu.

### ■ KARIBEKO DANTZAK

“Karibeko dantzak” ikastaroa ere antolatu du Gazteria Sailak, sakontze mailan. Urriaren 13an hasiko da eta plaza mugatuak direnez, lehenbailehen eman dezakezue izena.

Interesatu-ek 943 77 00 65 zenbakira deitu.

### ■ ARGAZKIGINTZA IKASTAROA

Hastapen mailako argazkigintza ikastaroa antolatu du Gazteria Sailak. Jon Ruiz de Zatek emango ditu eskolak, urriaren 16an hasita. Interesatu-ek 943 77 00 65 zenbakian galdetu.

### ■ FANDANGO ETA ARIN-ARINAK

Begarako Moises Azpiazu dantza taideak helduei zuzendutako fandango eta arin-arin ikastaroa antolatu du. Interesatu-ek 943 76 15 40 zenbakira deitu.

### ■ KATIXIMA IKASTAROA

San Joan Parrokiako haurrak hasiak dira dotrina ikasten. San Frantzisko elizako haurrak irailaren 5ean eta 6an hasiko dira, 18:00etan.

### ■ HURRENGO EGUNEKO PILULA

Udaleko Sexualitate Zerbitzuak hamabostaldi bat antolatu du, informa-

zioa zabaltzeko hurrengo eguneko pilulaz eta beste hainbat gairen inguruan. Urriaren 8a arte izango da, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara, Gazte bulego- an dagoen Sexualitate zerbitzuan.

### ■ ARGAZKI ERAKUSKETA

UNICEFek antolatutako argazki erakusketa ikusiko da Bergarako Udaletxeko batzar aretoan, urriaren 1etik 10era bitartean. Tartean “Patesnak” film laburra eskainiko dute, Bilboko Film Laburren zinemaldiko irabazlea. Filma 18:00etatik aurrera eskainiko da, leku berean.

### ■ PALA TXAPELKETA

Deba Garaiko pala txapelketan parte hartzeko izen ematea zabalik dago. Interesatu-ek Musakolako kiroldegira jo dezakete, urriaren 7a baino lehen.



**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**  
Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 78

■ **GARAGARTZAKO ZOZKETA**  
San Migeletan Garagartzan egin zen zozketako zenbaki saritua 181 izan da. Irabazleak hilabeteko epea dauka saskia jasotzeko. Epe horretan agertu ezean, 1.081 zenbakia izango da irabazlea.



 **Txitxinpe**  
Bereztasunak  
Kazuelatxoak  
Otarako hotz eta beroak  
Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

**Hilbera  
kafetegia**  
Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70

# Gudari Eguna, istilutsua

Astelehen iluntzeko kale agerraldia istilutsua gertatu zen: hiru zauritu, atxilotu bat eta hainbat beribil gurutzaturik Arbolapeta inguruan.

Zazpi eta erdietan abiatu zen kale agerraldia Maalarantz. Urtero bezala, ezker abertzaleko jendeak lora eskaintza bat egin nahi zuen Gudari Egunean. Errabalaren bukaeran ertzainak zeuden bidea ixten. Ika-mika batzuen ostean, ertzainak gomazko pilotak disparatzen hasi ziren. Batek Ino Galparsoro alkate-ordea jo zuen masailezurrean eta lurrera bota zuen. Beste batek Agustin Ibarluzea "Txispas"i jo zion belarriondoan eta hau ere lurrera joan zen. Aitor Etxabek ere makilakada bat jaso zuen aurpegian. Orduan bertan, Ezekiel Fernandez "Marmi" atxilotu zuten.

Txispasek ia hogei minutu egin zituen lurrean, anbulantzia iritsi bitartean. Bera eta Ino Galparsoro Eskualde Ospitalera eraman zituzten.

Manifestariak Lau Bide aldera abiatu ziren orduan, ertzainak atzean zituztela. San Andrestik buelta egin ostean, herriko plazan amaitu zuten,



Ertzainek buruetara apuntatu zuten.

Eusko Gudariak kantatu ondoren. Bidean zehar, hildakoak omendu zituzten.

Geroago, kaputxatu batzuek hainbat auto gurutzatu zituzten Arbolapeta inguruan. Ordu erdiz edo, zirkulazioa etenda egon zen toki hartan. Ez zen besterik izan.

Bien bitartean, Txispas Larrialdietan zegoen. Iritsi zenean, botaka egin zuen eta ez zituen lagunak ezagutzen. Ino Galparsorori plaka bat atera zioten. Ez batak ez besteak ez zuten hezurrik apurtuta. Hala ere, Txispas Gasteizko Santiago ospitalera erama-

tea erabaki zuten osagileek, miaketa sakonagoa egiteko, badaezpada.


Jon Usobiaga abokatua iritsi zenean ospitalera, gertatutakoak salatzeke asmoa adierazi zuen. Xabier Zubizarretak ere gogor gaitzetsi zuen Ertzaintzaren portaera.

Hamarrak eta hamarreen larrialdietarako bereziki presaturiko anbulantzia batek Gasteizko Santiago ospitalera eraman zuen Agustin Ibarluzea Txispas. Ordurak hasia zen bere onera etortzen. Zenbait adiskide Gasteizera joan ziren, laguntzera.

## BIHARAMONA

Asteartean borroka eguna deitu zuen Jarraik irakaskuntzan. Esteban Nietoren heriotza salatu nahi izan zuten. Baita bezperan Arrasaten gertatutakoak ere. Eguerdian ikasle asko bildu zen kale agerraldira. Bezperan bezala, ertzainekin egin zuten topo, baina gazteak espaloira igo ziren eta zirkulazioa oztopatu barik segitu zuten. Ez zen istilurik izan.

Epailearen aurretik pasatu ostean, Marmi askatu egin zuten. Txispas ere astearte arratsaldean ekarri zuten etxera.



20 minutu egin zituen Txispasek lurrean, anbulantziaren zain.

## My ile apaindegia

Alfonso X Jakintsua, 1 behea (Grupo San Juan) • Tel.: 943 79 79 65

- Gizon eta emakumezkoentzako ile apaindegia
- Mozketa eta kolore joera berriak
- Txanda aurrez eskatu

### Ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: 09:30 - 12:00 eta 14:00 - 19:30
- Larunbatetan: 08:30 - 13:30



## UGARTE

Industria hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00  
Faxa: 943-793412

## TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu jostekak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerrias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

## Ehun urte gaixoak sendatzen

San Juan de Dios ospitalean 100 urteko historia jasotzen duen liburu aurkeztu zen asteazkenean. Ospitalaren mendeurrena dela-eta eman dute argitara.

Liburu hiru zatitan banatua dago. Lehenengoan ospitalaren historia jasotzen da. Bigarrenean mendeurrena ospatzeko egin diren ekitaldien berri ematen da eta hirugarrenean, ospitalaren egungo lan egiteko modua azaltzen da.

Horrezaz gain, aspaldiko argazkiak ere ikus daitezke. Tartean, ospitalean egon zen lehenengo gaixoaren erretratoa ere ikusten da, Pedro Jose Galdos.

Aurkezpenean Angel Agiriano (ospitaleko zuzendaria), Fernando Oruesagasti Euskadiko Kutxako ordezkaria, Xabier Zubizarreta Arrasate-



San Frantzisko Xabier eta Loiolako Inazioaren hizketaldia.

ko alkatea eta Victor Marin San Juan de Dios ordenaren Gipuzkoako ordezkaria izan ziren.

Horrekin batera, Antonio de Oteiza eskulturgile donostiarrak egin duen eskultura inauguratu zuten Xabier Zubizarretak eta Victor Marinek.

Eskulturak Xabierko San Frantzisko eta Loiolako San Inazioen elkarrizketa irudikatzen du.

Asteazkeneko ekitaldia ere Aita Menni ospitalaren lehen mendeurrenako ospakizunen barruan sartu da. Laster santutu egingo dute Aita Menni.

## Bi jolastoki konpontzekotan

Arrasateko Udalak Garibai kaleko eta Musakolakō Nao Santiagoko jolastokien azterketa egingo du, ondoren konpontketa lanak egiteko. Izan ere, guraso batzuk kexatu egin dira aipatutako bi jolastokien egoera eskasa dela eta.

Musakolari dagokionez, gurasoek diote inguruko jolastoki gehienek behar dutela konpontketa. Kezkagarria da, baina, bereziki Nao Santiago jolastokia. Dirudienez, hango ziburuek ez dute umeen babeserako gomarik, herriko beste leku batzuetan moduan. Hori dela eta, istripuren bat dagoenean, kolpea behar baino handiagoa izaten da.

Garibai kaleko jolastokiarri dagokionez, berriz, ziburuak metalezkoak dira, desegokiak gurasoen iritziz. Lurraren egoera ere nahiko eskasa omen da.

Hau guztia ikusita, udaleko Hirigintza batzordeak erabaki du azterketa egitea, aurtengo udal aurrekontuak onartu aurretik.

## Aita Demetrio Garmendia hil da

Mendizabalen Desamortizazioa ezkerko San Frantzisko eliza itxita egon zen urte luzeetan. 1955a arte, Aita Demetrio Garmendiak ireki zuen berriro. Berrogieta lau urte geroago, hil egin da, 90 urte zituela.

Berrobin jaioa zen, Tolosaldean. Arantzazun euskaltzaletu zen eta gerraostean ezagun egin zen predikatzaila moduan.



Arrasatera Garaialderekin batera etorri zen. Asko idatzi zuen, batez ere *Zeruko Argia* eta *Goiz Argi* aldizkarietan. Ia azkena arte segitu zuen idazten. Azken aldiari Arantzazuko egutegirako idazten zuen batik bat.

Hileta elizkizunaren ostean, Arantzazura eraman zuten Aita Demetrio Garmendiaren gorpua, hantxe lurperatzeko. Goian bego!

## Agustin Markaide

Eroskiren filiala den Erosmerrek udan egin zuen batzarrean hainbat aldaketa egin zituen. Agustin Markaide arrasatearra, esate baterako, Erosmerreko kontseilari ordezkari berria izango da.

**Aupa Maritxu!**

**OKORETEGI**

**KAFETEGIA**

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.:943 77 03 62

# Udal Euskaltegiak hiru urte beharko ditu curriculum berria ezartzeko

Ikasturtea hasi berria dagoela, aldaketa handiak datoz Arrasateko Udal Euskaltegi-  
ra. Izan ere, laster hasi behar-  
ko da curriculum berria lan-  
tzen. Joan den astean honen  
ardatzak ezagutarazi zituzten  
HABeko arduradunek.

Aldaketarik handiena irak-  
kaskuntzaren perspektiban  
dago: lehen euskara ezagu-  
tzeari ematen zitzaion garran-  
tzia; orain, berriz, erabiltze-  
ari. Hori lortzeko, HABEk ikas-  
material berriak prestatu ditu,  
euskaltegi euskaltegi mol-  
datu beharko direnak.

Hemendik aurrera, gaine-  
ra, euskalduntze prozesua lau  
mailatan banatuko da, orain  
arteko hamabi urratsak bertan  
behara utziz.

Euskaltegiek hiru urteko  
epea izango dute metodologia  
berrira egokitzeko. Arrasate-  
koak, hain zuzen, Nerea Maiz-  
tegi zuzendariak esan duenez,  
hiru urte horiek erabiliko ditu  
transizioa egiteko. Joan den  
ikasturtean hainbat ikastaro



Nerea Maiztegi, udal euskaltegioko zuzendaria.

egin zuten curriculum berria  
lantzen ikasteko. Euskaltegi  
bakoitzak berea egin beharko  
duenez, hiru urteko epea ego-  
kitzat jo dute hemen.

## 287 IKASLE

Arrasateko udal euskaltegiak  
287 ikasle izango ditu aurrean,  
22 taldetan banatuta. Hori-  
tariko batzuk Lagun Aro, Iker-  
lan, Euskadiko Kutxa, Ale-  
jandro Altuna eta Aita Men-  
ni enpresetako langileak dira.

Guztira 11 irakasle ditu eta  
ia 64 milioi pezetako aurre-  
kontua izango du ikasturte  
honetan.

Bide luzea egin du  
1981ean sortu zenetik: 18 urte.  
Lehen urtean Eskola Politek-  
nikoan eman zituzten eskolak.  
Hiru irakasle baino ez ziren.  
Urtebete geroago Arimazuri  
plazara pasatu ziren eta han-  
txe segitzen dute.

Orain arte lau zuzendari  
izan ditu: Sagrario Zubizarreta,  
Nati Abasolo, Joserra Agi-  
rreurreta eta Nerea Maiztegi.

## Udal Euskaltegia

- Zuzendaria.....Nerea Maiztegi
- Idazkari akademikoa.....Edurne Mujika
- Plantilako irakasleak .....Miren Arregi  
Joserrá Agirreurreta  
Amaia Altuna  
Amaia Arana
- Ordezko irakasleak .....Elena San Martin  
Asier Irizar
- Aldi baterako irakasleak.....Itziar Larrañaga  
Ruben Epelde  
Amaia Ugartemendia

Berriro zuekin ...

**Maalako Errabala 33an**

Tel.: 943 79 70 11

**Barceló**



**Bidaiak**

*zorionak Maritxu...*

*...ta ondo ondo pasa denok !!!*

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA

**SOLARIUMA**

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78

**KIMETZ**

Kazuelatxoak,  
ogitartekoak eta  
pintxoak

Mala, 15  
Tel.: 943 79 60 14  
ARRASATE

# ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



## BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

**ARRASATE**

# GRUPO **RK AUZ**

FAGOR 

## ALTZARIAK



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**

## SUKALDE INTEGRALA



Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**

# **=KANPAZAR**

**Gida baimenik gabeko autoa  
hementxe aurkituko duzu**

**14 urtetik aurrera**



**Microcar**

Newstreet, Lyra eta Pratic

**ZATOZ GU EZAGUTZERA**

TAILERRA: Bizkaia etorbidea, z/g. Tel.: 943 794 198 Fax: 943 771 284 • ARRASATE  
ERAKUSKETA: Araba etorbidea, 32 Tel.: 943 797 766 • ARRASATE



## JAI ABERATSAK

Aretxabaletako jaiak ondo beteta ospatu dira aurten. Sekula baino jende gehiagok egin dio kuku Aretxabaletari asteburuan. Makina bat gauza ikusi dira, gainera. Hantxe izan ziren, esaterako, Biolurreko nekazariak. Baita Unai Iturriaga eta Mañukorta bertsolariak ezohiko agertokitik bertsoak boteaz. Herri bazkarian, bestalde, 400 pertsonatik gora izan omen ziren. Jai ederrak, beraz!



## IZENAK

### Itxaso Garai

Gipuzkoako Batzar Nagusietako hamaika batzordeen lehendakariak izendatu dira. Horieta bat, Itxaso Garai arrasatearraren esku geratu da. 31 urteko EAJko zinegotziak Kultura eta Euskara izango ditu bere ardurapean hemendik aurrera.



## DISCO-BAR



**Disco-Bar Gurelekuk  
MARITXU jai zoriontsua  
opatzten dizu.**

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE  
Tel.: 943 79 20 29

## ESKIÑA taberna

Zorionak eta ondo ibili Maritxu egunean!  
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20

## MUXIBAR

Tel.: 943 79 11 25  
**PIZZAK**



## ESKERRIK ASKO

Larunbatean kontzertu berezi bat izan zen Gaztetxean. Herriko bederlatzi taldek David Delgado "Zenu"ren omenezko kontzertua eman zuten. "Zenuren" lagunek, eskerrak eman nahi dizkiete parte hartu zuten talde guztiei eta, orokorrean, herritarrei.



## NOBENAIXUA ONDO BETETA

Araiako gazta eta mantxegoa, Arientzako Mitartegarai baserriko ogiarekin lagunduta jateko. Edateko, berriz, La Puebla de Labarkako ardo gozoa. Horixe eman zen ostiralean Herriko Plazan Maritxu Kajoiaren "nobenaixua" ospatzeko. Jendea ere nahikotxo gerturatu zen.

### SAMIGELAK - GARAGARTZA

SAMIGELETAKO JAIEN ALDE,  
ZOKKETA EDERRA IZANGO DA:  
GARAGARTZAKO  
PRODUKTOZ BETERIKO OTARRA

Laguntza 100 PTA. Nº 00151 Zk.

ZOKKETA AUZOKO JAIEKAKO BAZKARIAN EGINGO DA  
1999ko IRAILAREN 26an  
TXARTEL HAU 30 EGUNETARA BALIOK GABE GELDTITZEN DA.

## SARIA JABERIK BARIK

Adi, Garagartzako San Migel jaietan auzoko zozketarako txartel bat duzuenok! Dirudienez, oraindik ez da

ateratako zenbakiaren jabea agertu. Beraz, aldatu eta 1.081. zenbakia da oraingo sariduna. Hau ere agertu

ezean, 1.388. zenbakiak eramango luke Garagartzako jakiz betetako otarra. Ondo begiratu!

# egizabal

## Oinetakoak eta poltsak

Olarte, 14 • ARRASATE • 943 79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28

# ZERA EMANGO DIZUGU...



INSTITUTO  
OPTIKO



pta. ren  
truke

zurre  
betaurrekoengatik

## BALE HAU AURKEZTEAN

Erabilitako betaurrekoak eman eta berriak erostean,  
INSTITUTO OPTIKOAK ordaindu egingo dizu:

**5.000,-pta.** betaurrekoak eta leiarrak erostean  
(25.000,- pta. baino gehiago balio dutenean)

**2.000,-pta.** betaurrekoak eta leiarrak erostean  
(25.000,- pta. baino gutxiago balio dutenean)

Eskaintza hau  
urriaren 15eraino luzatuko da

Erdiko kale, 21 - Tel.: 943 60 31 54 MUTRIKU (GIPUZKOA)

Andra Mari, 8 - Tel.: 94 620 29 86 / Grupo San Ignacio, 6 - Tel.: 94 681 84 92 - DURANGO (BIZKAIA)

Erdiko kale, 22 - Tel.: 943 79 71 68 / Hiper Eroski - Tel.: 943 79 78 26 - MONDRAGON (GIPUZKOA)



# UGARTE

## A R O Z T E G I A

Apainketa • Alzariak

San Juan, 1 • (Gasolindegiaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxes: 943 76 54 91



### *Opel Astra diesel berria*

2.0 DTI 16V. 100 zaldi

**TAKOLO AUTOAK**

Araba etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia  
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

**OPEL** 

# Eskapularioa zintzilikatu eta dotore jantzi

**Urriko lehen eguna eta ostirala. Zer da? Maritxu Kajoi ospatzen dela. Nola? Dotore-dotore jantzita. Zer dela eta? Maritxu miraria egitera doa eta. Zer, baina, oraingoan? Zortzietan plazara joan behar. Edo bestela, sartu jai batzordeko komisiñuan eta aurrez miraria zein izango den dakiten pribilegiatuetakoa bat izango zara.**



## EGINBEHARRAK

**E**ta ez hori bakarrik. Aurrekontua batu behar da, egitaraua landu, eskapularioak egin eta saldu, *nobinarixua* prestatu... Ez dira, ez, gutxi Maritxu Kajoi jai batzordeko kideek egin behar izaten dituzten lanak egun horretarako. Aurten 25 lagunek osatzen dute batzordea.

Juanito Barberan eta Onintza Lopez de Munain dira batzorde horretako kideetako bi eta geuk eurekin izandako solasaldiari esker, hainbat gauza jakin dugu oraindik gaztea den jai honen gainean.

Uste baino lan gehiago dauka Maritxu Kajoi jaiak. Eta jaiaz gozatzen dutenetzat jantzia prest izateak lana bada- kar, pentsa zer izan daitekeen egitarau alternatibo bat prestatzea, hormirudia asmatzea, eskapularioak saltzea eta beste hainbat lotu beharreko gauza. Eta agian gutxi batzuek ez dakitena da eskapularioak beharrezkoak direla jai aurrera ateratzeko. "Eurak dira aurrekontuaren ia erdia, %45 inguru", esan digute gure bi berriemaileek. Ez da diru gutxi, aurten duten bi milioi-

ko aurrekonturako. Beraz, zenbat eskapulario saltzen dira? "Aurten 5.000".

Eskapularioak dira Maritxu Kajoi festako ezaugarrietako bat. Nor baino nor doto-

reago jantzi arren, denek eraman behar dute eskapularioa zintzilik, benetako maritxuzale izan nahi badute behintzat.

Eskapulario berezi hauek 200 pta.n saltzen dira eta urte-

# ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5 • Tel.: 943 79 20 52 • ARRASATE

EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRA!






1981

tik urtera aldaketaren bat izaten dute. Batean marrazki bat, bestean bertso bat. Hori bai, beti Maritxuren irudia aurrealdean.

### OMENALDIA YANYORI

Aurtengo eskapularioak, miluartero azkenak, omenaldi txiki bat eskaintzen dio martxoaren 10ean hil zen Juan Jose Garmendia, *Yanyori*. Batzordeko kide izan zen urtetan eta behargin handia. Bertsoa Juan Luis Arexolaleibak, *Gatxik*, egin du aurten, baina berak esan bezala, "Danel Goikoleak eta biok egin izan ditugu edo inguruko bertso-lariei eskatuta". Honela dio: *Berba, parranda eta lanean ez duzu eman amore, Maritxu Kajoi antolatzen be aritu zara*



1984

*dotore, Maritxundako izango zara primerako enbajadore, komisiñoko lagunen partez Yanyo agur ta ohore!*

### ZORIONAK ZURI!

Hirurogeita zortzi lagun zoriondu beharrean gaude gaur, gainera. Eta nola dakigun? Oso erraz, Maritxu eguneko egitarauari esker. Urtero zoriontzen dituzte Maritxu ospatzen den egunean jaiotako arrasatearrak. Egitarauan jasotzen dute izen zerrenda eta izen bakoitzari ezizen bat jaritzen diote.

Gure berriemaileek kontatu digutenez, "batzuetan oso erraz egiten dugu. Izenak edo abizenak ematen digu horretarako jokoak. Beste batzuetan, ordea, beste kontu batzuk iza-



1985



1986



Jende dexente egon zen Nobenarixuan joan den ostiralean.



Txanpaina ere edaten da Maritxu egunean.

ten ditugu gogoan; adibidez, Maria Aranzazu Garciaetxabegarte andereari "Kapikua" ezizena jarri diogu. Emakumeak 66 urte ditu, 1999an betetzen ditu eta 1933an jaio zen. Edo Jon Zubizarreta Bolinaga umeari "Aingerutxo" deitu diogu. Bera da zerrendako gazteena, hilabeteak baino ez ditu eta. Beste ezizen guztiak egitarauan bertan begiratzea da onena, merezi du eta!".

### EGITARAUA

Originaltasunik ere ez zaio falta aurtengo egitarauari. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte urriaren lehenerako, eta tartean "Marbellatik datorren delegaziñuak ongi etorrixa egingo dio Arrasateko Uda-

## Adi-adi irakurri egitaraua, merezi du eta!

letxiak". Ekitaldia Monterronen izango da, hori dela eta, komisiñoko kideek "limusiñak aparketako Monterron ingurua libre itxi bie da"la diote. Beste ekitaldi handi bat ere antolatu dute: pilotaleku berriaren inaugurazioa. Gaueko 22:00etan izango da eta horretarako aukeratutako pilotariak Vera eta Barrionuevo batetik eta Liaño eta Garzon bestetik, lehen partidari. Aznar II. - Belarri Handi bikotea eta On Arzalluz - Egibar mona-

Kajojigiles dugu txit mutil askarra, horri honetan bada beraren beharra. Erabil sazu, ama, zeruko indarra infernuko zuloatik libratzeko Txarra.

1987

Txikiteroen patroi bakarra zintzoa eta fidela guk estimatzen zaitugu beti semeak ama bezala nork ez du ikusten jarraitzailetan indartuaz zoazela seguru beste santu ta santak denak inbiriz daudela.

1988



1989

ESATEKORIK BADAUKAGU MARITXU AGURGARRIA AURTENGO HONTAN EZ BADAUZU NOLA EGIN MIRARIA ENTZUN EZAZU TXIKITEROEN OTOITZ ETA ESKARIA NAIZ EGUN BATEZ BAKARRIK IZAN MERKETZEKO EDARIA.

1990



BERBA, PARRANDA ETA LANEAN  
EZ DUZU EMAN AMORE,  
MARITXU KAJOI ANTOLATZEN BE  
ARITU ZARA DOTORE,  
MARITXUNDAKO IZANGO ZARA  
PRIMERAKO ENBAJADORE,  
KOMISIÑOKO LAGUNEN PARTEZ  
YANYO AGUR TA OHORE!

1999

MIRARI ASKO EGINAGATIK DIRUZ NABIL OZTA OZTA ESKAPULAIKO HONEK GEHIAGO BEHARKO DU AURKI KOSTA, HURRENGO URTEAN BERROGEI DURO AURPEGI ALAIEZ BOTA BARTZELONAKO OLINPIADARA JOATEKO ASMOZ NAGO TA.

1991

AI MARITXU IZANDA HAIN URTE GRABEA, TXIKITEOA DUGU UMORE GABEA. ZURETZAKO DAUKAGU ESKARI DOBLEA, ERRETIRO ONA TA LANPOSTU HOBEA.

1993

gillua ere arituko dira. Partida ikusgarriak, beraz!

### ARTISTA BERRIA

Jakin dugunez, aurtengo egitarauaren azala herriko artista berri batek egin du. Orain arte Iñigo Arregik eta Juan Luis Goikoleak egin izan dute, baina aurrean Kepa Altube, *Kopik*,

egin du. Antzeko estiloari lotu zaio *Kopi*. Hemen ere, Yanyori omenaldia egin dio artistak, bere irudia beste pertsonaren artean tartekatuz.

### BERRIKUNTZAK

Aurtengo aurrekontuaren zati bat Maritxuri jartzen zaion trankak arriskurik ez sortzeko,

egitura berria egin diote. Asmoa da suzirien oihaltza ez erretzea "inoiz itzalgailluarekin ere ibili behar izan gara eta". ■

Marijo Deogracias

OHOL ZAHAR BATZU JARRI ZITUZTEN NIRE AURREAN PAREZ PARE, URTE OSOAN HALA EGON NAIZ JENDERIK IRISI GABE. TXIKITEROI ESAN NAHI DIET HARTU DEZATEN ADORE, ZOKOREN BATEAN NI GORDETZEKO ASMOREN BATZU BADAUDE, BAIHA HEHENTXE SEGI GURA DOT HURRENGO URTETAN ERE.

1994

ASPALDIAN ARROTZAK DABILTZA AGINTZEN, MONDRAUEN ERE HORI ARI DA GERTATZEN. BAINA BIDE HORTATIK EZ GABILTZA ZUZEN, ELKARREN AURKA JARRIZ EZ DA EZER LORTZEN, GUZTION ONERAKO ELKARTU GAITEZEN.

1998

NAHIZ ETA MAHAI NAZIONALANTZAT IZAN DEN URTE GOIBELA, NAHIZ TA EGINEK BERE INPRENTA IZANGO DUEN GARITZELA, NAHIZ SANTAMASAK EZ ZIREN JOAN BESTE URTETAN BEZALA, JAKIN ZAZUTE NERE BARRIUAN ORAINDIK POZ BAT BADELA, MARITXUTRAGO JAKAI ORAINDIK ZUTIK JARRAITZEN DUELA.


1997

GORETSI ZAITUGUNOK 20 URTEZ BAPO, EDARITAN EZ DOGU ERREGALU ASKO, AURTEN ETXE BERRIA IZAN DOZULAKO, GUTXIAGO DAUKAGU TXIKITOTARAKO

1996

LEHEN BAI,  
LEHEN !!

1995



Onintza Lopez de Munain eta Juanito Barberan.

### MARITXU EGUNeko EGITARAUA

- **08:00** Etxafleroak eta gobernuak debekatzen ez badu parrokiako kanpaiek 8 aldiz joko dute.
- **17:00** Umeentzako eta ez hain umeentzako kale animazioa, Auskalo taldearekin.
- **18:30** Marbellatik datorren ordezkari Udalak ongi etorria egingo dio Monterronen.
- **19:00** Erraldoiak eta kilikiak dultzaineroekin.
- **19:30** Fanfarrearen kalejira, Txumaik zuzenduta.
- **20:30** Lore eskaintza Maritxuri.
- **22:00** Pilotalekuaren inaugurazioa.
- **24:00** Dantzaldia Seberon, *Aldaba* taldearekin.
- **24:00** Joselu Anaiak herriko plazan.
- **06:00** Mister Euskadiren *estriptisa*.

## RUMBA TABERNA

**JAI ZORIONTSUA IZAN!!**

Iturriotz kalea  
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00

**Juanito eta Onintza dira Maritxu jai batzordeko prentsa arduradunak. Hori aprobetxatuz, elkarrizketa txikitxo bat egin diegu, Maritxuren jaiari buruz duten iritzia jakin nahian.**

— **Zenbat urte daramazue batzordean?**

— Onintza: Sei

— Juanito: 20

— **Zaila da jaia antolatzea?**

— Onintza: Lan handia du, jendeak uste duena baino handiago bai.

— Juanito: Zaila ez, urtetik urtera mekanika hartzen diozu eta.

— **Zer da Maritxu egunetik gehien gustatzen zaizuen?**

— Onintza: ohiturarekin betetzen dela, nahiz eta jende askok eskapularioak jantzi ez.

— Juanito: sortzen den giro polita.

— **Zer da Maritxu Kajoi jaia zuentzat?**

— Onintza: Gau berezia.

— Juanito: parranda eder bat egiteko gau berezia.

— **Ardozaleen jaia da?**

— Onintza: Ez, edaten ez dutenen jaia ere bada.

— Juanito: Ez, guztion jaia da.

— **Neketsua da miririak asmatzea?**

— Onintza: Bai, ideiak bukatzen ari zaizkigu.

— Juanito: Bai, geroz eta neketsuagoa.

— **Negozio bat bihurtu da jantziarena?**

— Onintza: Geroz eta janzki dotoreagoak ikusten dira, hori egia da, bai.

— Juanito: Dendariei galdetu behar hori.

— **Norentzako jaia da: gazte, heldu...?**

— Onintza: Arratsaldean denetik ikusten da, ikastetxeetan ere ospatzen dute. Gauean, ordea, gazte gehiago ibiltzen da.

— Juanito: Ondo pasatu nahi duten guztientzat.

— **Arrasatekoa ez den jende ugari etortzen da egun horretan. Ondo deritoxozue?**

— Onintza: jaiak arrakasta izan duelako izango da.

— Juanito: masifikatu egin da, baina hori jaiaren arrakastaren erakusle da, ezta?

**Kaskoa jantzi eta  
marka handi  
batez gozatu**



**MURU**



**AUTO KONPONKETAK**

**ZERBITZU OFIZIALA:**


Motorren konponketa eta salmenta




**YAMAHA**



**PIAGGIO**



**PEUGEOT**




*Eskaintza bereziak*

Araba etorbidea, Eskatu pabilioia • ARRASATE



# Scénic berria



## MECA TAILERRAK

ARRASATE Tel.: 943 71 24 72 • BERGARA Tel.: 943 76 40 68

# HIZKUNTZEN MUNDUA



Informa zaitez orain !

**Matrikula  
Epea Zabalik**

- ▶ Hizkuntza eta maila guztiak.
- ▶ Ordutegi malguak.
- ▶ Mediateka zure esku dohainik.
- ▶ Haur, gazte eta helduentzat.
- ▶ Multimedia sistemak.



**AHIZKE S. COOP**  
Avda. de Alava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)  
Tel.: 943 71 20 55 Faxa: 943 71 21 81  
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com  
http:www.cim-idiomas.com  
**Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)**  
Tel.: 943 71 60 00

**Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)**  
Tel.: 945 15 01 55 Faxa: 945 15 01 56  
E-mail: gasteizbaibay@cim-idiomas.com  
**Zubieta, 26 - 20007 DONOSTIA (GIPUZKOA)**  
Tel.: 639 71 98 58  
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com  
http:www.cim-idiomas.com





- Garageko atek
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko aginte tresnak eta hauen mota guztietako kopiak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak

Kataide industrialdea, 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17  
110 Postakutxa • ARRASATE

**JUBAR**<sup>®</sup>  
ATEAK, S.L.

## ORAIN DA PRIMERA BAT EROSTEKO GARAIA

99ko sorta

400.000 pta.ko aurrezkiarekin

Azken ~~16~~ unitateak  
7

2.095.000\* pta.tik  
aurrera

5 urtetako bermearekin,  
Km. mugagabeak



\*Prezioa (BEZA, matrikulazio tasak, garraioa, Nissan assistance, promozio kanpaina barne). Plan Prever barne. Hil bukaera arte estockean matrikulatzen diren autoentzako balioduna.

**Aldi** // **bi**

**NISSAN**

Zigarrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 02 • Faxa: 943 79 65 65



# AKPn lau koordinatzaile ari dira

Lau beteratzailek zuzentzen dute Arrasate Kirol Proiektua: Igor Esparak, Iñaki Barrenak, Endika Muruamendarazek eta Zigor Gartzia. Eurak dira ia 800 neska-mutikoen kirol ekitaldiak antolatzen dituztenak eta haien kirol hezkuntzaz arduratzen direnak. Beren lanaz egin diegu galde:

— AKPn lehiak ez du

**garrantzirik. Ez da partidarik jokutzen?**

— Bai, larunbatero eta aurrekiroletik aurrera, ia aste-oro dituzte norgehiagokak. Baina sailkapenetan partaidetza, jarrera eta puntuaketa hartzen ditugu kontuan.

— **Zertan da zuen lana?**

— Orain taldeak osatzen ari gara. Gero entrenamenduak

hasiko ditugu eta baita partidak jokatzeko ere. Asteazken zehar sortzen diren gorabeheren konponbidea eman behar. Astebururako ekintzak ere antolatu egin behar.

— **Nortzuk daude proiektuaren atzean?**

— Ikastetxe guztiak. Arrasateko eta Aramaioko udalek ezinbesteko laguntza eskain-

tzen digute. Eskertzekoa da, orobat, urteetan guraso taldeek borondatez egin duten lana.

— **Zer egin behar da AKPn izena emateko?**

— Ikastetxean eskuorria eskatu eta kirol koordinatzaileari eman. Neskak nahiko genituzke adoretu kirola egitera. Mutilek baino neska gutxiagok eman du izena.

☞ **Zenbat denbora daramazue honetan lanean?**

*Iñaki:* Bigarren ikasturtea da.  
*Zigor:* Nire bigarren urtea da.  
*Endika:* Bost urte.  
*Igor:* aurten hasi naiz.

☞ **Zer ikasi duzu?**

*Iñaki:* Soin Hezkuntzan diploma naiz.  
*Zigor:* Soin Hezkuntzan diploma naiz.  
*Endika:* Soin Hezkuntzan lizentziatu naiz.  
*Igor:* Soin Hezkuntzan lizentziatu naiz.

☞ **Zer atsegin duzue gehien?**

*Iñaki:* Jende asko ezagutzen

duzula zeure inguru hurbilean.  
*Zigor:* Jendeak kirola egiteko ohitura hartzen duela.

*Endika:* Eskola kirolak antolaketan dituen berezitasunak.

*Igor:* Lan bizia dela, batetik bestera aritzeko aukera da.

☞ **Zer azpimarratuko zenukete AKPn?**

*Iñaki:* Bere izaera hezitzailea.  
*Zigor:* Eskaintzen duen aukera zabala. Kirola ezagutu eta gero hautatzen da.

*Endika:* Arrasateko eta Aramaioko eskolen parte hartzea eta Gipuzkoan aitzindari dela proiektua.



AKPko lau beteratzaileak: Igor, Iñaki, Endika eta Zigor.

*Igor:* Proiektuaren atzetik dabilen jendetza.

☞ **Zergatik eman beharko lukete izena haurrek AKPn?**


*Iñaki:* Kirola euskal giroan eginenez, ondo pasatzeko.

*Zigor:* Kirola heziketa eraba-

tekoa lortzeko bide delako.  
*Endika:* Adin bereko haurrekin harremanak sendotu edo berriak sortzeko.

*Igor:* Lagun artean eta lehiaketa alde batera utziz, norberak dituen ahalmenak adieraziteko bidea delako.

**MARITXU EGUNEAN ONDO PASATZEKO...**



Iturriotz, 12 • ARRASATE

**BOLIÑETE**

OILASKO ERRETEGIA  
Bertan jateko edo eramateko.

Maritxu Kajoi zoriotsua opa die bere bezeroei

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

Urriaren 4tik 19ra arte itxita egongo da



**Maritxu egunean aldatu zure orrazkera**

Kontzeziño, 4 behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 09

## SASKIBALOIA

### Berriz ere garaile



Denboraldia hasi ez dela oraindik, emaitza bikainak lortzen ari da Kenci-Arrasate saskibaloia taldea. Joan den larunbatean ere irabazi egin zuen Lander Errastiren taldeak. Eta ez nolana, gainera. Askatuak taldea izan zuen aurrez aurre. Azkenean, 79 eta 70 gailendu zituzten bisitariak.

Lander Errasti entrenatzaile berriak adierazi duen bezala, "emaitza onak lortu ditugu taldearen jokatzeko era aldatuz". Larunbatekoa izan zen aurrendenboraldiko azken

norgehiagoka. Izan ere, Mari-txu ostein ekingo diote denboraldiari Kenci-Arrasatekoek. Bihar, larunbata, Gernikan jokatuko dute aurtengo ligako lehenengo partida.

## FUTBOLA Hasteko, berdinketa



Bina amaitu zen larunbatean, Atxabalen jokatu zen futbol partida. Errejonial mailako Mondra taldea eta Soraluze aritu ziren denboraldiko lehenengo partidatan. Etxeko taldeak joko polita erakutsi zuen.

Soraluzetarrek sartu zuten lehen gola, baina lehen zatia amaitu aurretik, berdinketa lortu zuen Xabi Mondragonek. Bigarren zatian Unai Uribesalgo, Txara, izan zen golegile. Etxeko taldeak jokaldi politak egin zituen eta hori taldea erabat berria dela. Azkenean, beraz, bi eta bi markagailuan eta Mondrak denboraldiko lehen puntua lortu du. Aste honetan Loiolakoaren aurka arituko dira. Neskek, 10 eta 0 galdu zuten Elgoibarko taldearen aurka. Aste honetan etxean arituko dira, Debako Hamaika Bat taldea aurrez aurre dutela.

Hauk izan ziren beste taldeen emaitzak:

- Ohorezko gazte mailan,

- Aldapetarrak 2-Mondra 1
- Bigarren gazte mailan, Arrasate 2-Bergara 5
- Ohorezko haur mailan, Arrasate 0-Lengokoak 0
- Bigarren haur mailan, Almen 0-Arrasate 6.
- Ohorezko infantil mailan, Zarautz 4-Arrasate 1

### ASTEBURU HONETAN:

- Ohorezko gazte mailan, Mondra-Pasajes
- Bigarren gazte mailan, Aretxabaleta-Arrasate
- Ohorezko haur mailan, Sporting Herrera-Arrasate
- Bigarren haur mailan, Arrasate-Aretxabaleta
- Ohorezko infantil mailan, Arrasate-Pasajes


## Del Rio txapeldun

Jon del Rio, Born Jay taldeko txirrindulariak, lortu du bere helburua: Lehendakari Saria irabaztea. Igandean Oñatin amaitu zen saria, San Migel lasterketan.

Datorren denboraldian Banesto taldean arituko da txirrindulari gaztea.

Oñatin Unai Barazabal,

Caja Rural taldeko txirrindularia, izan zen irabazlea. Angel Vazquez, Born Jay taldekoa bigarren izan zen helmugan. Lehendakari sariko txapelduna, Jon Del Rio tolosarra, berriz, bosgarren izan zen. Emaitza ona azken denboraldia izango duen Born Jay taldearena.



Maalako Errabala, 8 • Tel.: 943 79 56 44

**Aupa arrasatearrak!  
Aupa Maritxu Kajoi!**




# Abenturarako prest

**Maritxuko ajea kentzeko  
modurik onena...**



**Astore, Ternua, Think Pink, North Face,  
Salomon, Peak Performance...**



**Aitor Elkoro**  
(pilotaria)

## Kirolean ere euskaraz


Deba Arroko Kirola Euskaraz entrenatzaile, begirale, gestore eta abarrentzako ikastaroak antolatu ditu. Hori dela eta, bailarako bi kirolarirekin egon gara euskararen gaia eurak nola bizi izan duten eta nola ikusten duten jakiteko asmoz.

- 1.- Mutikotan, eskola garaian, kirola egiten zenuenean euskaraz egiten zen?
- 2.- Zure oraingo kirol jardueran zein da egoera eta azken urteetan aldaketarik somatu duzu?
- 3.- Nondik nora ikusten duzu hobekuntzarako bidea eta nola baloratzen dituzu Kirola Euskaraz-ek antolatutako ikastaroak?

1.- Guk, eskola barruko kirol ekintzetan gaztelaniaz egiten genuen. Eskolaz kanpo, berriz, Oskarbi kultura eta kirol taldean ibiltzen ginen. Egiten eta beti euskaraz egiten genuen, bai gure artean eta baita begiraleekin ere.

2.- Orain profesioaletan, denetik dago. Gehienetan pilotarien artean euskaraz egiten dugu, baina Gipuzkoakoekin bakarrik. Botillero Aranzeta daukat eta berarekin euskaraz egiten dut, baina preparatzailearekin gaztelaniaz. Gaurko egoeran ez dut nik aldaketa handirik somatzen.

3.- Ba, niretzat prestakuntza inportantea da. Gure garaian bakoitzak bere kontura ikasten zituen gauzak eta alde horretatik Kirola Euskaraz-en ikastaroak interesgarriak iruditzen zaizkit, gauzak hobeto ikasteko.



**Felix Iñurategi**  
(mendizalea)

1.- Inguruan orokorrean giro euskalduna zegoen. Herri txikiko giroa izan dut eta kasu hauetan euskara gehiago erabiltzen da. Entrenatzaile eta taldekide batzuk erdaldunak ziren, baina orokorrean giroa euskalduna zen.

2.- Inguruan giroa ez da txarrena, baina oraindik hobe daiteke. Oraindik gaztelania nagusi da, baina euskara ere nahiko erabiltzen da. Askotan espedizioko kideen arabera hitz egiten da. Komunikabideetan ere gehiena gaztelaniaz, baina zenbait jende badabil euskaraz ere lan bikaina egiten.

3.- Nik hobekuntzarako bidea sentsibilizazioaren alde-rik ikusten dut, hori da landu beharrekoa. Zuen egitasmoak bide hori jarraitu behar duela uste dut eta ikastaroek hor joko eman dezaketela iruditzen zait.

## Euskal Herriko motokros txapelduna

Joseba Alvarez bergarra da Euskal Herriko motokros txapelduna.

Igandean jokatu zen txapelketa Mojatetik zelaian. Arrasate Motorzale elkarteak antolatu duen Euskal Herriko II. Motokros Txapelketa zen eta oraingoan bai, Josebak irabazi egin zuen. Izan ere, aurreko lau urteetan ere parte hartu izan du, baina bigarren tokian gelditu da guztietan. Azkenean, ordea, lortu du, 250 cm kubikoetan. Berarekin batera Paco Carmona eta Asier Blazquez aritu ziren. Paco Carmoak min hartu zuen eta lasterketa laga behar izan zuen.

Proba honetan 29 pilotuk hartu zuten parte, gazte eta senior mailan. Gazte mailari dagokionez, 13 pilotu aritu



Joseba Alvarezek irabazi zuen Euskal Herriko motokros txapelketa.

ziren lehiari eta seniorretan 16. Hauetatik sei 125 zentimetro kubikoko motorrekin eta


hamar 250 cm kubikorekin. Paco Carmona 125 zentimetroetan aritu zen eta Asier

Blazquez, 125 zentimetro kubikoetan txapelduna Daniel Soria izan zen.

Gazte Kontuaren  
Zerbitzua

EUSKADIKO KUTXA

Ireki ezazu  
**GAZTE KONTUA**



modan dagoelako




Orain, 25.000 pta.rekin Euskadiko Kutxan Gazte Kontu bat irekitzeagatik, aterkia ERAMATEKO soin-maleta bat (aterki eta guzti) eskuratuko duzu. Gazte Kontuarekin eskura ditzakezun gainerako gauzez hobe ez hitz egitea, gaur bertan izango baituzu horien berri kontua irekitzen duzunean. A! ia ahaztu zait. Zalantzaren bat baduzu, **galdetu 901 200 000 Gazte Telefonoan**. Gazte Kontua apartekoa da eta gainera boladan dago.



Promozio honek 99-10-11ra arte edo izakinak agortu arte balio du.

<http://www.cajalaboral.es>

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun  
zuzena

# Arrasate-Almen eskubaloi taldeak

Lehen territorial mailan arituko da aurten herriko eskubaloi talde nagusia. Baina izen berria izango dute Bernardo Balerdiren taldekoek. Arrasate-Almen taldea. Izan ere, eta bi taldeek sinatutako hitzarmena tarteko, Almen eskubaloi taldeko hainbat jokalarari arituko dira aurten Iturrieko taldean.

Bederatzi jokalarari dira Almenetik datozenak. Guztiak ere gazte mailakoak. Beteranoei dagokienez, lau jokalarari dira taldean segitzen dutenak. Balerdiren taldeak asteburu honetan ekingo dio denboraldi berriari. Larunbatean, gazte mailakoek lagun arteko partida jokatu dute, Almenen aurka 17:00etan.



**Aitor Chavarri**  
(18 urte)  
atezaina



**Igor Egaña**  
(18 urte)  
atezaina



**Borja Vicente**  
(18 urte)  
hegalekoa



**Aitor Gartzia**  
(19 urte)  
hegalekoa



**Nestor Calleja**  
(18 urte)  
hegalekoa



**Jonan Eskibel**  
(19 urte)  
hegalekoa



**Mikel Lopez**  
(18 urte)  
euskarria



**Manolo Carrasco**  
(21 urte)  
euskarria



**Bernardo Balerdi**  
entrenatzailea

**Igandean ekingo dio denboraldiari Arrasate-Almen eskubaloi taldeak. Norgehiagoka 12:00etan izango da, Hernaniren aurka.**



# lea osatu berri da




**Jon Akizu**  
(18 urte)  
hegalekoa



**Eneko Gartzia**  
(18 urte)  
hegalekoa




**Gorka Arando**  
(18 urte)  
hegalekoa




**Jon Urrutia**  
(18 urte)  
hegalekoa




**Mikel Velasco**  
(24 urte)  
hegalekoa



**Mikel Labaien**  
(18 urte)  
erdilaria



**Aritz Gordo**  
(19 urte)  
erdilaria



**Ruben Espeso**  
(18 urte)  
euskarria



Bidekurutzeta 3, 1.  
Tel. eta faxa: 943 76 40 33

LANGAIrekin  
lankidetzan

INEMek homologatutako  
ikastegia

Diruz lagunduriko  
ikastaroak

## ▶ PRESTAKUNTZA ARLOAK

- Informatika
- Hizkuntzak
- Ikasketarako laguntzak
- Giza baliabideak
- Gestioa eta administrazioa
- Ingurugiroa
- Kalitate sistemak
- Automatismoak eta teknologia

## ▶ ENPRESENTZAKO PRESTAKUNTZA

- Prestakuntza beharren diagnostikoa
- Prestakuntza plan pertsonalizuak
- Erakunde publikoetako diru laguntzen tramitazioa

SERBI *can*

## JESUS LARRAÑAGA (KOOPERATIBISTA)

# “Deba bailara bazter

Arrasatearra da jaiotzez eta baita bizitzaz ere, baina bizimodu erdia bidaiatzen igarodur. Jesus Larrañaga Maalako 14. an jaio zen eta badu zeresanik Mondragoeko historia hurbilean. On Joxe Maria Arizmendierrietaren ikasle hasieran eta lankide gero, Arrasateko kooperatiba mugimenduen sortzaileetariko bat izan zen. Giltzurrun trasplantea egin berri diote eta pozik dabil, “apurtxo bat geldoago, baina ederki”.

— Zein ikasketa mota egin zenuen kooperatiben sorreran egoteko?

— Hasieran ikasketa normalak. Ostean, guk zortea izan genuen, Unión Cerrajeran Escuela de Aprendices baitzegoen. Aita Cerrajerako langilea zenez, eskola horretan sartu nintzen. Handik, On Joxe Mariak prestatutako Biteri Eskola Profesionalera joan nintzen eta handik Zaragoza-

ra, peritajea egitera. 1955ean hasi ginen lehenengo kooperatibarekin, Gasteizen. Han urtebete egin eta Mondragoera etorri ginen.

Gasteizen ekin genion kooperatiben mugimenduari, han lortu baikenuen lehenengo lantegiaren lizentzia. Dena dela, On Joxe Mariak inondik inora ez zuen nahi Gasteizen geratzerik. Beraz, Mondrago da dudarik barik kooperatibismoaren bihotza.

— On Joxe Maria irakasle izan zenuen...

— Bai, Cerrajeran. Egia esan, pelma samarra zen, ez zuen samurtasunik irakasteko orduan. Hori bai, ideia iraunkorak zituen eta aurrera begira egiten zuen lan. Berarekin lanean hasi ginen lagun talde bat: Alfonso Gorroñoigoitia, Ormaetxea, Ortubai, Julio Gorroñoigoitia...

Konforme geunden haren asmoekin.

— Nolakoa zen On Joxe Maria?

— Gizon argia zen, gauzak aurrera begira ikusten zekiena. Pertsona ren gan konfiantza handia zuen eta,

gainera, haren ustez, pertsona komunitatean errealizatzen da. Antolaketari dagokionez, ere, intuizio handia zuen. Kapitalismoaren ideia onak hartu zituen eta guk ezarri nahi genuen sistemari ezarri zizkion. Horretarako egin zuen lehenengo kooperatiba bat, gero talde osoa, gero aurrezki kutxa eta gero eskola. Sare bat eraiki zuen. Hasieran “Grupo Ularco” zen; ostean “Grupo Fagor” izango zena.

— Nola ikusten duzu kooperatiba?

“Langile kooperatibistak gauza askori egin behar dio uko. Kooperatibismoan norbera ezin da aberastu”



# “tuta dago”

## tibismoaren etorkizuna?

— On Joxe Mariak argi esaten zuen: kooperatibismoak porrot egiten badu, izango da hor goian daudenak sinesten ez dutenean.

## — Eta orainoz sinesten dute?

— Hala dirudi. Dena dela, sortzaileok bagenuen halaholako su bat, orain kooperatibismoan dagoen jende berriak, normala den moduan ez duena. Ezin dezake eduki, gainera. Hala ere, langile kooperatibistak gauza askori egin behar dio uko. Konpromiso

handia behar da, kooperatibismoan norbera ezin da abe-rastu.

## — Giltzurrun trasplantea egin zizuten duela gutxi. Nola bizi izan duzu hori guztia?

— Nik zortea izan nuen dialisiarekin. Badago dialisi mota bat etxean egin daitekeena eta nik hori erabili nuen. Dena dela, egunero egin behar da. Baina horrelako batean, maiatzean lehendabizi eta ekainean ondoren, ospitalera joateko deitu zidaten. Sekulako zortea izan dut kasu honetan ere. Izan ere, ebakuntzaren

ostean, hasierako estuasunen ostean, nire gorputzak berehala onartu du giltzurrun berria eta ederki nabil; orain lehen baino apurtxo bat geldoago, baina ederki, bai.

## — Ostiralean zure azken liburua aurkeztu zenuen Bilbon. Beste bat prestatzen omen zabilta. Hori da lanerako gogoia duzuna...

— Bai, gustatu egiten zait gauzak egitea, hitzaldiak ematea, komunikazioa... *Travesía hacia la democracia económica* izeneko liburua prestatzen ari naiz orain.

## — Zerbait gehiago esan nahi baduzu...

— Bai, begira. Donostia-ira diru asko bidali dugu kooperatiben bidez, batez ere. Aldiz, eurek gero, askoz ere diru gehiago inbertitzen dute Donostialdean. Azterketa bat egin beharko litzateke gune bakoitzaren premien inguruan eta horren arabera banatu diruak.

Nire ustez, Deba Bailara baztertuta dago. Adibidez, Donostialdeko askori galde-tzen diezu “non dago Arrasate?” eta ia inork ez du ezagutzen. ■

# Argazkigintza ikastaroa

## HASTAPEN MAILAKOA TEORIKOA ETA PRAKTIKOA

- **Irakaslea:** Jon Ruiz de Zarate
- **Noiz:** urriak 16 - abenduak 18
- **Ordutegia:** larunbat goizetan, 10:30 - 13:30
- **Tokia:** ASaren egoitzan, Uriburu kalean
- **Matrikula:** 5.000 pta  
3.000 ikasle eta langabeentzat
- **Plaza mugatuak**



ARRASATEKO UDALA  
Gazteria Saila ■

IZENA EMATEA: Gazte Bulegoan • Tel.: 943 77 00 65

aste gazte

■ KONTZIENTZIA ERAGOZPENA

• Intsumisioa edo objekzioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, pasa zaitez Gazte Bulegotik eta paperak tramitatzeke behar duzun informazioa emango dizugu.

■ UNIBERTSITATERAKO AUTOBUSAK

• Ikasturte honetan Donostia, Bilbo edo Gasteiza egunero joan-etorria egin nahi baduzu, badaude autobus zerbitzu bereziak ikasleei zuzenduak. Argibideak, Gazte Bulegoan.

■ DIRU LAGUNTZAK

• 1999-2000 ikasturtean unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko diru laguntzak. Epea: urriak 15.

• 1999-2000 ikasturtean zehar unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko izaera orokorreko diru laguntzak. Epea: urriak 29.

• Eusko Jaurlaritzaren eskutik nekazaritza eta arrantza arloan prestakuntza eta ikerketak egiteko bekak. Epea: urriak 3.

■ LANA

• Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuak, sei fisioterapeuta lanpostu betetzeko lehia-keta deialdia egin du. Epea: urriak 10.

■ ANTZERKIA

• Gasteizko nazioarteko antzerki jaialdiaren programa daukagu. Interesatuz gero, pasa zaitez bulegotik eta informazioa emango dizugu.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

LEIRE APERRIBAI (EKIN-EKO ERAGILEA)

# “Era guztietako jendea erakarri nahi dut”

25 urteko arrasatear hau da EKIN emakume taldeko eragile berria. Irailaren hasieran ekin zen jardunbide horretan, eta ikasteaz gain, EKIN taldea berrikuntza egitasmo batean barneratzeko asmoa du. Horrekin batera, taldea zabaldu nahi du.



— Zein ikastaro antolatu dituzue?

— Gabonak bitartean eskulan eta dantza ikastaroak antolatu ditugu kalean eta Garagartzan. Barazkizaleentzako sukaldaritza eta talogintza ikastaroak ere bai, lehenengo aldiz, urriaren bukaera aldera edo azaroaren hasierarako. Sukaldaritza ikastaroak lau egun iraungo du, eta talogintzarenak egun bakarra.

— Zeintzuk dira irakasleak?

— Dantza ikastaroa Natalio Maiztegik emango du, eta eskulana Mila Akizuk. Talogintzarena, berriz, EKIN emakume taldeko partaide batzuek emango dute.

— Zein ikastarok du arrakasta handiena?

— Iaz “Landare zaintza”ri buruzko ikastaroak izugarriko arrakasta izan zuen. Jakoba Rekondok eman zuen Gesalibarko Jentil Ola elkartearen, eta inguruko auzoetako jende askok hartu zuen parte. Emakumeen artean, berriz, dantza ikastaroak du arrakasta handia. Ikasturte berriari begira sukaldaritza ikastaroak jende berri ugari erakar dezake.

— Auzoetan eta erdialdean antolatu dituzue ikastaro asko. Zergatik?

— Hasieran AEDko egoitzan antolatzen ziren, baina gero Gesalibar

eta Garagartzako hainbat taldek auzoan ekintzak antolatzeko eskaera egin zuten. EKINi eskatu zitzaion auzo horietako ikastaroak antolatu eta kudeatzea. EKINek zerbitzu hori eskaini eta esparrua zabaltzearen alde egin zuen.

— Zein adineko emakumeak izaten dira ikastaroetan?

— 30 urte inguruko emakumeetatik hasi eta 70 urte artekoak daude gutxi gorabehera. Batezbestekoa, hala ere, 50 bat urtekoa da.

— Gizonezkorik izaten da?

— “Landare zaintza”ri buruzkoan gizonezko dexente izan ziren eta “Ontziratze eta kontserba” ikastaroan ere bai. Dantza eta eskulan ikastaroetan, berriz, emakumeak dira denak.

— Bereziki gazteentzako antolatu duzue ezer?

— Hori oso zaila da. Lehenik eta behin gazteen zaletasunak ezagutu behar dira. Dena den, barazkizaleentzako sukaldaritzak gazteak ere erakarriko dituela uste dut.

## “Barazkizaleentzako sukaldaritzak gazteak ere erakarriko ditu”

## Aranaren "Bajo el Tilo" erakusketa



"Bajo el Tilo" margolana.

Valentín Arana Ezkurra margolari arrasatearraren "Bajo el Tilo" margolana erakusketa ibiltari baterako aukeratu du Friasko Lagunen Elkarteak, Burgosen. Irailaren 2tik 12ra Burgosko Espololon aretoan

erakutsi dute, eta irailaren 14tik 20ra Miranda de Ebroko Aurrezki Kutxaren erakusketa aretoan izan da. Irailaren 21ean, berriz, Bilboko Larrea erakusgelara ekarri dute, eta han izan da hil bukaera arte.

Valentín Aranak "Ciudad de Frias" izeneko nazio mailako XII. lehiaketara aurkeztu zuen bere lana, eta lehiaketa horretan aukeratu dute erakusketa ibiltarian erakusteko.

## Herri arteko bertso txapelketa

Gipuzkoako herri arteko bertsolari txapelketaren barne, Arrasaten neurtuko dituzte indarrak Leintz eta Azpeitiko Oñatz bertsolari taldeek. Urriaren 8an izango da bertso saioa, Alkartu elkartearen. Leintz taldeetik Jon Sarasua, Saioa Arando eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariak hartuko dute parte. Oñatz taldeetik, berriz, Anjel Larrañagak, Jokin Urangak eta Joxe Agirrek.

Bertso saioaren aurretik afaria izango da, iluntzeko 20:30ean, Alkartun bertan. AEDko bertsozaleek antolatu dute saioa, SUCD elkartearen laguntzarekin.

Afarirako txartelak AEDn eros daitezke, 1.000 eta 1.700 pta.n eros daitezke.

**SEAT**

**UDALAITZ, S.A.**

Musakola, z/g • Tel.: 943 79 18 80  
ARRASATE



### *New Beetle*

*Edertasunak mirespena sortzen duelako*



## Orain, metalurgian ere emakumeak



Beste lan irtenbide bat: emakumeak orain buzoarekin

**Emakumeei zuzendutako  
soldadura ikastaroa  
antolatu da**

**Jantzi  
buzoa  
zuk ere**

Soldadura teknikak ikasi eta enpresetan praktikatzeko ateak zabalik dituzue.

**Ikastaroaren iraupena:**

Azaroaren 2tik  
martxoaren 31 arte. (400 ordu)

**Ordutegia:**

09:00 -13:00 (astelehen, astearte,  
asteazken, ostegun, ostirala)

**Plaza mugatuak (15)**

**Izen ematea:** urriaren 20a arte

**Antolatzailea:**  
Enplegu Zerbitzua



ARRASATEKO UDALA

**Laguntzailea:**  
Emakume Saila

Emakume Saila ■  
Enplegu Zerbitzua ■

## Gatza eta Berakatzza



Denboraldi honetan, Deba Garaiko hainbat sukaldari ikusiko dituzue *Gatza eta Berakatzza* saioan. Egunero plater bat sukaldatuko dute: sarrerakoak, okelak, arrainak, postreak... denetik apur bat.

Auzo Lagunek eta Eroskik babesten dute saio hau. Grabazio guztiak Auzo Lagunen egin dira.

*Gatza eta Berakatzza* birritan emango da egunero: 13:35ean, Albiste Aurrerapenaren ostean, eta 22:00ak inguruan, eguerdikoaren errepika.

### Datorren astean

**NOIZ**

**PLATERA**

Astelehena, 4	perretxioko suflea
Astearte, 5	azenario eta kalabaza krema
Asteazkena, 6	txahal karrilerak
Osteguna, 7	atuna bilbotar erara
Ostirala, 8	intxaur eta mahaspasa tarta.

## 10 urteko kontuak

### Eman ta zabal zazu

ATBk egindako lanak hainbat telebistatan ikusi izan dira urte hauetan. 1990ean, adibidez, Eskoriatzako Telesko hemen egindako hainbat saio ematen hasi zen: *Medikua Etxean*, *Erretratoa*, *Musikantoi*... Saio horiei esker, Teleskok aberastu egin zuen euskarazko eskaintza.

Iaz ere, Erreterria aldeko Oarso Telebistan hemen egindako *Munduari Bueltaka* saioa ikusi zuten. Gasteizko Canal Gasteiz eta Barakaldoko Tele 7 herri telebistek ere *Soinuz Blai* saioa eskaini zuten astero.

Aurten ere *Soinuz Blai* ikusi nahiko luketela adierazi dute Barakaldokoek.

# ATB

## Programazioa

### OSTIRALA, 1

- 13:30** ATBren programazio berriaren aurkezpena, Iban Gonzalez eta Marijo Deograsiaren eskutik.
- 19:00** Urtez urte, 1991tik 1998ra bitarteko Maritxu Kajoi jaiari buruzko bideoa.
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** 1991tik1998ra arteko Maritxu Kajoi jaiaren egunak ekarriko dira gogora, goizaldeko 02:00ak bitartean.

### LARUNBATA, 2

- 13:30** Maritxu Kajoi.
- 14:30** 1999ko Maritxu Kajoi jaia, Unai Iparragirrek aurkeztuta.



### IGANDEA, 3

- 13:30** Maritxu Kajoi bideo berezia.
- 14:30** 1999ko Maritxu Kajoi, Unai Iparragirrek aurkeztuta.

### ASTELEHENA, 4

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza sukaldaritza saioa. Igor Ezpeletarekin.
- 13:45** 1999ko Maritxu Kajoi eguna ATBko pantailan, Unai Iparragirrek aurkeztuta.

**20:00/20:30/21:00** Berriak dekoratu berrian.

- 21:30** Mondrasport, Itxaro Zubillagak aurkeztuta.
- 22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).

### ASTEARTEA, 5

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
- 13:45** Mondrasport (errepika).
- 19:25** Jolasplast, Mikel Lizarralde aurkeztuta, Garazi Carrillo eta Maitane Lopez de Munainen laguntzarekin.
- 20:00/ 20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Hamaika Magazin.

Astrologia, sexualitatea, osasun kontuak... ekarriko dizkigu Arantza-zu Lagunillak, Ubane Madera kazetariaren laguntzaz.



**22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).

### ASTEAZKENA, 6

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
- 13:45** Hamaika Magazin (errepika).
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Aurrez aurre. Sasoi bateko Arrasateko kontuak ekarriko dizkigu Edurne Mujikak.



**22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).

### OSTEGUNA, 7

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
- 13:45** Aurrez aurre (errepika).
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Musiklasik. Iñaki Olaizolak Mozarten Requiema ekarriko du.
- 22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).
- 22:15** Soinuz Blai, Edu Abasolok eta Miren Gonzalezek aurkeztuta.



### OSTIRALA, 8

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
- 13:45** Musiklasik (errepika).
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Astebete.
- 22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).
- 22:15** Soinuz Blai (errepika).



## BAKAILO ETXEA



- Bakailaoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAKO bakailaoan espezializatua
- Bakailao kazoletak prestatzen dira (bakailao gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 943 79 93 07

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

- Etxebizitza jarri berria salgai Bergaran, Ibargarain. Tel.: 610 80 37 19. 18:00etatik aurrera.
- Etxebizitza salgai Aretxabaletan, garage eta guzti (aukeran), 72 m<sup>2</sup>. Erdialdean eta berritua. Tel.: 943 77 02 27.
- Etxebizitza salgai Erguinen. Hiru logela, sukaldia, komuna, egongela, berogailua eta gas naturala. Tel.: 943 79 85 33. Gauez.

### 2. Erosi

- Etxebizitza erosiko nuke Aretxabaletan. Tel.: 943 79 90 24.

### 3. Errentan emateko

- Etxebizitza alokagai, ikasleentzat, Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 617 21 73 45. Gauez deitu.

### 4. Errentan hartzeko

- Bikote batek logela bateko etxe txiki edo teilatupea alokatu nahi du. Tel.: 616 45 23 99.
- Etxebizitza behar dut alokatzeko Eskoriatzan edo Arrasaten (beste batzuekin batera). Tel.: 943 51 42 89.
- Bikote arduratsua urtebete edo gehiagorako etxebizitza bila dabil, errentan hartzeko. Tel.: 943 77 18 23.
- Ikasle batek logela bat behar du, familia batean, mantenu osoan, astelehenetik ostiralera. Tel.: 944 60 97 69.
- Ikasle batek gela bat alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 93 14 02 68.
- Etxebizitza behar dut alokatzeko, Arrasaten. Tel.: 606 06 96 75.
- Ikasle batek gela bat alokatuko luke etxebizitza batean, Arrasaten. Tel.: 943 79 47 85.

### 5. Etxeak osatzeko

- Etxebizitza osatzeko lagun bat behar da Aramaion. Tel.: 943 77 04 98. Irene.
- Leioan pertsona behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 08 49. Amaia.
- Bi neska euskaldun behar ditugu

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otorora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

Deustuan (Madariaga kalea) etxebizitza osatzeko. 17.000 pta. Tel.: 943 79 58 22.

• Pertsona bat behar da Donostian etxebizitza osatzeko, Antigua. Tel.: 943 79 79 12.

• Bi neska behar ditugu Leioan, etxebizitza osatzeko. Tel.: 945 45 52 67.

## GARAJEAK

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Altamiran dagoen 59 m<sup>2</sup>ko lokala salgai. Tel.: 943 79 66 62.

### 14. Errentan emateko

• Lanearan diharduen negozioa (gozokidenda) alokatzen da Kontzeziño kalean. Tel.: 943 77 10 97.

• Erdialdean dagoen taberna alo-

katu edo eskuz aldatzeko prest gaudede. Tel.: 617 37 42 37.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Esperientziadun emakumea prest dago etxea garbitzeko. Tel.: 943 79 68 77. Mari Carmen.

• 23 urteko mutila lanerako prest. Informatikan ondo moldatzen naiz, erabilerari dagokionez. Tel.: 619 15 44 06. Fco. Jose Martinez.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Lanak, apunteak, era guztietako agiriak... ordenadorez pasatzen ditut. Tel.: 943 79 07 64 eta 619 15 44 06. Fran. 24 orduz.

• Emakumea lan egiteko prest arratsaldeetan, etxeko lanak, lokalen bat garbitu, edo pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 943 77 10 20.

• Ospital laguntzaile diplomaduna prest zaharrak eta gaixoak zaintzeko. Auto handia daukat. Tel.: 609 77 01 33.

• Neska prest garbiketara lanak egiteko, orduka. Tel.: 943 71 53 74.

## 18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da, ziklomotor gida baimenarekin, afalorduan pizzak banatzeko. Tel.: 943 79 45 64.

• Emakume edo ikasle bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko. Aramaion, gauez. Tel.: 616 99 86 09.

• Zerbitzari euskalduna behar da. Tel.: 945 44 50 86.

• Zerbitzariak behar dira jatetxe batean lana egiteko. Tel.: 943 78 35 26.

• Neska euskalduna behar da denda batean lan egiteko. Tel.: 943 76 60 16.

• Larunbatetan eta igandeetan Arrasate hotelean lan egiteko neska edo mutila behar da. Tel.: 943 79 73 22.

• Sukaldari esperientziaduna behar da prestatutako jakiak saltzen dituen tokian lan egiteko. Tel.: 943 77 06 12.

• Pertsona bat behar da umeak zaintzeko, orduka lan eginez. Tel.: 943 79 16 09.

• Sukaldaria behar da jatetxe batean, arratsaldeetarako. Tel.: 943 77 00 78. 21:00etatik aurrera.

• Iturgintzan esperientzia duen pertsona bat behar da. Deitu lehenbailehen. Tel.: 943 77 01 19 edo 943 79 19 19.

• Neska bat behar dut umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Autoa behar da. Tel.: 943 71 50 92.

• Esperientzia duen ile apaintzailea behar da, Deba Garaian lan egiteko. Deitu 607 42 84 79 telefonora.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Goi Mailako ingeniarietza industrialeko matematika, fisika, kimika eta marrazki teknikoko eskolak emango nituzke. Esperientzia handia. Tel.: 630 71 35 83.

• Pianoan lizentziadunak, pianoa erakusteko eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Tel.: 943 79 24 14.

• Ingelez eskolak ematen ditut. Talde mugatuak, egun osoan. Tel.: 943 79 18 70.

• Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako eskola partikularrak ematen dira, euskaraz edo gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

• Esperientziadun neska OHOKO



eskola partikularrak emango lituzke euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 77 17 20 eta 943 79 25 09. Ana.

- Gitarra elektrikoko eskola partikularrak ematen ditut, hutsetik hasita, maila guztiak. Tel.: 666 69 28 69. Jose Luis.

## 21. Eskaerak

- Pertsona bat behar da DBH 2. mailako eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 79 45 55. Jon.

- Euskara irakaslea behar da goi mailako eskolak emateko, astean behin edo birritan. Tel.: 943 76 26 57.

## MOTORRA

### 23. Saldu

- Kawasaki GPZ/400 salgai. Tel.: 943 73 18 72 eta 943 73 12 82.

- Suzuki 50 cm<sup>3</sup>, 10.000 km. egina, gida baimenik barik ematekoa. Salgai Tel.: 943 79 82 06.

- 1998an erositako motorra salgai, 50 c.c., 200.000 pta. Egoera one-

an. Tel.: 943 79 58 45.

- Yamaha XT 350 salgai. Txuri-gorria. BI-BI. 11.200 Km. Kutxa, bi burubabes, giltzarrapoarekin. Prezioa: 375.000 pta. Tel.: 607 44 38 10.

- Yamaha XJ 600. Egoera onean eta ITVa pasatuta. Merkea, bi maleta opari. Tel.: 943 79 26 35. Eguerdi eta gauean.

- Motor berri-berria salgai. Honda NTV 650, 11.000 kilometro, estra eta guzti. Tel.: 943 79 20 40. 20:30etik aurrera.

## DENETARIK

### 26. Saldu

- Arropa lehorgailua salgai, aire beroa eta guzti. Ez du instalaziorik behar. Tel.: 943 77 18 41.

- Lanean ari den negozioa eta furgoneta salgai. Interesatuok deitu 656 72 24 53 telefonora.

- Spaniel-Breton arrazako txakur kumeak salgai. Interesatuok deitu 943 79 19 63 telefonora.

- Kanadiar kanpin denda salgai, abanze eta guzti. Oso merke. Tel.: 943 79 23 69. Gauez.

- Auto gainean eramateko kutxa salgai. Tel.: 943 79 23 69. Gauez

- Pigini esku soinua salgai, 120 eta 58 botoiduna, egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 70 28.

- Fagor markako izozkailu etzana salgai. 300 litro. 20.000 pta. Tel.: 943 79 58 79.

- Logela bat saldu nahi dut. Gereziendo egurra, 1,35eko ohea, armairu handia, bi mesilla eta komoda bat. Berri-berria dago eta itxura klasiskoa du. 60.000 pta. Tel.: 943 71 42 19.

- Esku soinua salgai, 96 bajukoa. Egoera onean, oso prezio interesgarrian. Tel.: 943 79 73 18.

### 27. Erosi

- Bigarren eskuko piano bat erosi nahi dut. Tel.: 943 79 73 82.

### 29. Eman

- Hilabete bateko artzan txakurra oparitzen dut. Tel.: 943 79 17 51.

### 31. Galdu

- Betaurreko graduatuak galdu nituen abuztuan. Granate kolorekoak dira eta funda beltz batean gordeta neuzkan. Aurkitu badituzu, deitu mesedez 943 79 93 63 telefonora. Isabel, eguerdian.

- Zubillaga eta Arrasate bitartean sabueso arrazako txakurra galdu dut. Hiru hilabete dauka, gorrixka kolorekoa eta lepokoa darama. Tel.: 943 79 11 36 eta 943 79 48 02.

### 33. Bestelakoak

- Jar zaitetz sasoiari energia unibertsalaren bidez. Era guztietako gaitotasunak, estresa eta beheraldiak barne. Deitu konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 45 74.

- Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko. Tel.: 943 79 81 19.

## HARREMANAK

### 35. Kontaktuak

- Emakume gazteak gizona ezagutuko luke lagun edo erlazio egonkor bat mantendu asmoz. Tel.: 639 23 59 70.

# Irrati ikastaroa

## Erredakzioa eta esataritza

- **Noiz:** Urriak 6
- **Ikastaro egunak:** Asteazkenero (20 ordu)
- **Ordutegia:** 18:00 - 20:00
- **Matrikula:** 4.000 pta. (Ikasle eta langabeentzat 2.000 pta.)
- **Tokia:** Arrasate Irratian

# Euskal dantzak

## Hamabost urtetik gorakoei zuzendua

- **Iraupena:** Urriaren 8tik abenduaren 17ra
- **Ikastaro egunak:** Ostiralero (15 ordu)
- **Ordutegia:** 19:00 - 20:30.
- **Matrikula:** 1.000 pta.
- **Tokia:** Lore Gazteak-en egoitzan.

IZENA EMATEA: Gazte Bulegoan • Tel.: 943 77 00 65



ARRASATEKO UDALA  
Gazteria Saila ■



**L** 954. urteko urtarrilekoa da argazkia hau. Maria Aranbarri ezkondu zen orduan, dantza irakaslea bera. Bere ikasleek, nagusiek eta gazteek, dantza saioa eskaini zioten.

Aurrenik parrokiara joan

ziren guztiak. Arku Dantza egin zuten han eta mezaren irteeran, ezkonberriak dantzarietz babestuta atera ziren. Ostean, Iturriotzeko Centro Catolicotan bazkaldu zuten eta han ere dantza. Bukatzeko, Pitxitxi tabernan luntxa izan zuten dantzari iaioek.

Argazkian Mariak zuzentzen zuen Centro Catolicoko nagusien taldekoak agertzen dira. Ezkerretik hasita, Juanita Ugarte, Pilar Barrena, Ana Mari Altuna, Karmen Apaolaza, Olga Vitoria, Begoña Martiartu, Begoña Ormazabal eta Elena Sagasta.

Entseguak Abade Etxeko etxabearen egiten zituzten.

-----  
*Argazkia eta  
berriematea:  
Maria Aranbarri*

# G A N B A R A

- Enmarkazioak
- Estiloko markoak
- Laminak
- Arte ederretako materiala
- Arte lanak (margo lanak)

Erguin, 2 behea  
Tel.: 943 77 12 37  
20500 ARRASATE





*Jangela, egongela, edo zuentzako nahiz umeentzako logela bat behar baduzu, zatoz Arrasateko TodoMueble Kabiara. Nahi dituzun altzariak, aurkituko dituzu ordaintzeko modurik onenean :*

*24 hilabeteko epea, interesik gabe eta 2000. urteko martxoan ordaintzen hasteko aukera eskaintzen dizugu.*

**Gaur erosi eta  
2000. urteko  
martxoan hasi  
ordaintzen!**

**TODO Mueble** **Kabiá**  
DARIA OIA

**Gipuzkoa Etorbidea, 28**  
**Tel. 943 79 27 70 • ARRASATE**

**Ordutegia: 10:15 - 13:30 eta 16:00 - 20:00. Larunbatak barne**

**sofa leku**



**a. eme... interiores**



**centro hogar muebles**

**grupo**



# **Amuebladora Mondragonesa**

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92